

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Gatikako Udala****Feria atrakzioen, kale salmentaren eta txosnen arautegia Gatikako 2019ko San Marko jaietarako.**

Apirilaren 25, 26, 27 eta 28an eta maiatzaren 3 eta 4an ospatuko diren San Marko jaiak direla eta, Alkatetza honek orain idatzi eta dekretu bidez ezarritakoaren arabera argitaratzen den arautegia onartu du 49/2019 Alkatetza Dekretu bidez.

**FERIA ATRAKZIOEN, KALE SALMENTAREN ETA TXOSNEN
ARAUTEGIA GATIKAKO 2019KO SAN MARKO JAIETARAKO****Xedea**

Agiri honen xedea da jabari publikoa okupatzeko baimenak arautzea, Gatikan, apirilaren 25, 26, 27 eta 28an eta maiatzaren 3 eta 4an izango diren 2019ko San Marko jaiak direla-eta, feria atrakzioak, txosnak eta kaleko salmentako postuak ipintzeko, feria atrakzioen, kaleko salmentaren eta txosnen Ordenantzaren arabera, ordenantza horretan ezartzen ez diren berezitasunak izan ezik. Kasu horretan, aparte arautuko dira.

Halaber, baimendutako okupazioak garatzeko baldintzak ezartzen dira.

FERIA ATRAKZIOAK ETA NEGOZIOAK ETA ANTZEKO BESTE INSTALAZIO BATZUK**Jardueraren datak**

Gehienez, apirilaren 24,25, 26, 27 eta 28, eta maiatzaren 3tik 5era egon ahalko dira (apirilaren 23tik aurrera muntatzeko eta maiatzaren 6ra arte desmuntatzeko aukera dago).

Kokalekua

Feria atrakzioak Eskolaren eremuan jarriko dira, apirilaren 23tik 28ra, eta 28an bertan, arratsaldean, lekua utzi beharko dute. Bestalde, maiatzaren 3tik 5era, anbulatorioaren atzeko parkean egongo dira, eta gehienez, maiatzaren 6an, goizean, utzi beharko dute lekua.

Eskabideak aurkezteko modua*Eskatzaileen baldintzak***A) Baldintza orokorrak**

Ordenantza honetan araututa dauden instalazioak jartzeko eskaera aurkeztu ahalko dute legez eraturik dauden pertsona fisiko edo juridikoek, beren zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzakoak egunean badituzte, eta toki, autonomia edo estatu mailan aplikagarria den arautegian arau-hauste oso larririk, bi arau-hauste larri edo hiru arau-hauste arin ez badituzte egin. Eskatzaileak zigor penalen bat jaso izan balu, bertan xedatutakoa beteko da. Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaerak automatikoki ezetsi egingo dira.

B) Baldintza bereziak

Erkidegokoak ez diren atzerritarrek dagozkion bizileku eta lan baimenak izan beharko dituzte, indarreko legediak ezarritako baldintza guztiak betez.

Baimenaren indarraldian edozein baldintza galduz gero, amaituztat joko da.

Eskabideak aurkezteko tokia

Lurzoru publiko egoki gutxi dagoenez, mota horretako behin behineko instalazioak jartzeko, ezinbestekoa izango da udalaren baimena izatea. Hor lortzeko, ordenantza honetan jasotzen den prozedurari jarraituko zaio. Gatikako Udalak, gehienez, 3 feria atrakzio edo negoziotarako baimena emango du.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak automatikoki baztertuko dira.



Instalazioaren adjudikaziodunak Alkatetza-dekretu bidez esleituko dira.

Ez da inola ere egongo automatikoki berritzeko prozedurarik. Halaber, baimena iraungita, ez da inolako abantailarik egongo ez uzte duen emailarentzat, ez eta harekin bereziki lotutako pertsonentzat ere.

Ematen den baimena besterenezina izango da.

Udalak beste eskatzaile batzuei adjudikatu ahal dizkio libre geratu diren postuak, betiere baldintza guztiak betetzen badituzte.

Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Aipatutako epez kanpo aurkezten diren eskaerak ukatu ahalko dira, izapide gehiagorik egin gabe.

Eskaerak aurkezteko lekua

Eskabideak Gatikako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, Alkatetza-dekretu honek ezartzen duen epean. Epez kanpo aurkeztutako eskaerak automatikoki baztertuko dira.

Eskaera-eredu orokorraren arabera eskabidea Gatikako Udalean jaso ahalko da, eta udalaren webgunetik deskargatu: www.gatika.net

Pertsonako gehieneko proposamen kopurua

Interesdun bakoitzak proposamen bat bakarrik aurkeztu ahalko du.

Aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileak jarri nahi duen atrakzio edo barrakaren ezaugarriak adierazi beharko ditu (itxita eta zabaldua zer tamaina duen bereziki, haiei erantsitako instalazioak barne, hala badagokio, leihatilak esate baterako), eta zer lotetan zehazki parte hartu nahi duen. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

- NAN edo IFKren fotokopia jadanik udalaren esku ez badago.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat, gutxienez, 601.012,10 euroko muga duena, atrakzio nagusi edo tamaina handikoen kasuan; 300.506,03 eurokoa, haurrentzako atrakzioetarako; eta 150.253,03 eurokoak, tiro egiteko etxoletarako eta edariak eta janaria saltzeko postuetarako, autonomia-erkidegoan aplikatzekoa den arautegian ezarritako baldintzen arabera.
- Delako instalazioaren segurtasun eta sendotasun baldintzak egiaztatzen dituen dokumentazio teknikoa, teknikari eskudunak edo egiaztatutako ikuskapen erakundeak izenpetuta. Dokumentazio horrek, gainera, instalazioaren urteko azterketaren eta irisgarritasunari buruzko araudiaren betearazpenaren ziurtagiriak jaso behako ditu, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legearen 30.2. artikuluan agindutako alderdiak ere.
- Jardueraren garapenean laneko segurtasun eta higiene arauetan eta lan arriskuen prebentzio arauetan ezarritakoa beteko dela egiaztatzen duen adierazpen arduratsua.
- Su itzalgailuak aztertze eta mantentzeko ziurtagiria, segurtasuneko araudiak hala eskatzen duenean.

Baimenaren edukia

1. Udalak egindako baimenetan honako hauek jaso beharko dira:
 - a) Titularraren, eta hala badagokio, jarduera bere izenean egiteko baimendutako pertsonen identifikazioa.
 - b) Aldi baterako instalazio mota (kaleko salmenta eta produktu, barraka eta atrakzio motak, edo txosnak).



- c) Postuaren kokapen zehatza.
- d) Instalazioaren ezaugarriak.
- d) Jarduera zer ordu eta egunetan egin ahalko den, edo baimenaren iraupena.
- f) Beste informazio batzuk, esaterako: zer produkturen salmenta baimentzen da, jardueraren titularrak zer baldintza bereziri jarraitzen dien, eta abar.

Fidantza

Adjudikaziodunek, ezarritako prezio publikoa ordaintzeaz gain, fidantza ere ekarri beharko dute, eremu publikoan edo beste udal ondasun batzuetan eragin ditzaketen kalteen aurrean erantzuteko.

- Barraka: 600 eurotik 1.000 eurora.
- Salmenta postua: 100 euro.
- Txosna: 300 euro.

Fidantza interesdunei 2 hilabeteko gehieneko epean itzuliko zaie jaiak amaitzen direnetik zenbatzen hasita, Alkatetzaren Dekretu batek haren konfiskatzea egokia dela ezartzen badu salbu, aurretiaz txostena egin ondoren eta interesdunaren alegazioen izapidearekin.

8. artikulua. — *Ordaintzeko betebeharra*

Jakinarazpenaren ostean, behin-behineko adjudikaziodun bakoitzak gehienez 5 egun baliodun izango ditu emandako espazioaren okupazioagatiko prezioa ordaintzeko. Epe horretan ez bada ordaintzen, eskatzaileak eskaerari uko egiten diola hartuko da. Dagokion eremua adjudikatu gabe geratuko da.

Norgehiagoka bidez adjudikatzeko beharra

Aurreko idatz-zatian ezarritakoa betez erabilgarri dauden eremuak baino eskaera gehiago daudenean, espazioak lehiaketa bidez adjudikatuko dira, ondorengo irizpideen arabera:

- Aurkeztutako eskaintza bakoitza 0tik 100 puntura baloratuko da.
- Erabiltzaileentzako prezioen eskaintzak 40 puntuko balorazioa jasoko du gehienez, eta prezio baxuenak aurkezten dituen eskaintzari puntu guztiak emango zaizkio; gainerakoak alderantzizko proportzioan puntuatuko dira. Ondorio horietarako zenbatuko dira zerbitzu homogeenak, eta prezioak proportzionalki handitu edo txikitu egingo da iraupen ezberdinak izanez gero.
- 20 puntu banatuko dira maila bereko barraka edo atrakzioekin Gatikako jaietan egondako urteen arabera; hala, jendea, espazioa eta bertako ezaugarriak eza-gutzea zerbitzuaren balio erantsizat joko da. Irizpide horretan, puntuazio guztiak emango zaizkio atrakzio berberarekin eskatzaile berak lurretan urte kopuru gehien izan dela egiaztatzen duen eskaintzari, eta gainerakoak urte kopuruaren zuzeneko proportzioan baloratuko dira.

Ondorio horietarako, azken 5 urteetan bertan egon izana baino ez da kontuan hartuko. Eskatzaileek dagozkien egiaztagirak aurkeztu beharko dituzte idatz-zati horretako puntuazioa eskuratzeko.

- 10 puntu banatuko dira instalazio bakoitzaren ingurumen-eragina txikiagotzeko hartutako neurrien arabera.

Horrela, atal honetan, gehienez, 4 puntu lortu ahalko dira, jarduerak sortutako hondakinak biltzeari dagokionez eskaintzen diren neurrien arabera; beste 4 puntu, energia kontsumoa eta argi kutsadura murrizteari dagokionez eskainitako neurriengatik (esaterako, argi kopurua, argi mota eta ezaugarriei buruzko neurriak) eta beste 2 puntu gehiago (gehienez), ingurumen eragina murrizteko neurriengatik. Eskatzaileek dagozkien egiaztagirak aurkeztu beharko dituzte idatz-zati horretako puntuazioa eskuratzeko.



- 10 puntu banatuko dira hobekuntzaren arabera (eskatutako aseguruaren estaldura zabaltzean datza), eta puntu guztiak emango zaizkio hobekuntza handiena aurkezten duen eskaintzari; gainerakoak zuzeneko proportzioan baloratuko dira.
- 10 puntu banatuko dira instalazioaren antzinatasunaren alderantzizko proportzioan, eta puntu guztiak emango zaizkie urtebeteko antzinatasuna egiaztatzen dutenei; urtebete gehigarri bakoitzeko, berriz, 0,50 puntu gutxiago emango zaie.
- 10 puntu banatuko dira honako hauen arabera: instalazioak dituen segurtasun neurriak (4 puntu, gehienez ere), instalazioan sartzeko mekanismoak, azalera irris-tagaitzak, desgaituentzat egokituta dauden, hala badagokio, eta antzeko neurriak (4 puntu, gehienez ere) eta matxurak konpontzeko era guztietako tresnak auzotareiri inolako izu edo arriskurik eragin gabe. (2 puntu, gehienez ere).

Ondorio horietarako, eskatzaileek beraien iritziz, idatz-zati hauetan biltzen diren me-rezimenduak aurkeztu beharko dituzte, eskaerarekin batera; horrez gain, dagozkien egiaztatgiriak ere aurkeztu beharko dituzte. Arrazoitu edo egiaztatu gabeko merezimen-durik ezingo da baloratu.

Erabilgarri dagoen espazio bakarra okupatzeko edo barraka edo atrakzioetarako prestatukoaren artean azkena okupatzeko eskaeren artean puntu berdinketa balego, adjudikazioa zozketa publikoaren bidez egingo da.

Adjudikaziodunen betebeharrak

- a) Adjudikaziodunek Alkatetza-dekretuan xede horretarako emandako gehieneko epean ipini behar dute barraka edo atrakzioa. Epe horren barnean jarriko ez bali-tz, eskatzaileak bere eskaeran atzera egiten duela esan nahiko du; hala, udalak espazioa hutsik utzi ahaliko du edota hurrengo eskatzaileari adjudikatutako pun-tuazioaren ordenaren arabera. Beste batzuei adjudikatutako espazioak ezingo dira inolaz ere laga (doan edo prezio baxuan). Hasieran proposatutakoaz beste-lako atrakzio edo barrakak ere ezingo dira jarri, eta beste erabilera batzuk ezingo zaizkie eman.
- b) Adjudikaziodunek beraien produktu edo zerbitzuen prezioen zerrenda jendeak ikusteko moduan jarriko dute, instalazioko guneen artean izan daitezkeen aldeak zehaztuko dituzte, bai eta dagozkien kasuetan ere, bidaiaren gutxienezko iraupe-na; instalazioa gutxienez edo gehienez zer adin edota altuerarekin erabil daite-keen ere adieraziko dute, eta laguntzailea noiz behar den.

Adjudikaziodunek beraien instalazioetako argi hornitzaileekin kontratuak izenpetu beharko dituzte, eta haien kargu geratuko da igorritako fakturak ordaintzea. Instalazioa hornikuntza iturriari konektatzea eta deskonektatzea udaleko teknikarien ikuskaritzapean soilik egin ahaliko da. Interesdunek kontratuen izenpetzea udaletxean egiaztatu beharko dute, eta instalazio elektrikoaren buletinak aurkeztu.

- d) Hornidura sareko ur hargune bat behar duten adjudikaziodunek alde zuzenetik eskatu beharko dute era independentean, eta ondorengo baldintzak bete:
 - 1) Eraikuntzaren Kode Teknikoan finkatutako baldintzak, HS4 dokumentua eta 140/2003 Errege Dekretuaren eskakizunak bete beharko dituzte.
 - 2) Harguneari lotzeko elementu guztiak PN16 izango dira, eta lotuneak, estan-koak.
 - 3) Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan abonatu gisa alta emango dute.

Ezingo dira jarri hodiak azalean, eta kutxatila ere ezingo dira bide publikoan irekita edo estalkirik gabe utzi. Salvuespen modura, eta okupatutako espazioan bertan ur hargunerik eta hustubiderik ez dagoenean, azalean hodiak jartzen utziko da, baldin eta behar bezala estaltzen eta seinaleztatzen badira kaltetutako guneko pertsonen irisgarritasuna ez eragozteko. Guztiz debekatuta dago ur hornidurako balbulak ma-nipulatzea, eta lan hori Udaleko Ur Zerbitzuak baino ezin du egin.

Urak ebakutzeko instalazioek ondokoa bete beharko dute: Eraikuntzaren Kode Teknikoan finkatutako baldintzak, HS5 dokumentua eta Bilbao Bizkaia Ur Par-



tzuegoaren Saneamendu eta Arazketa Zerbitzua arautzen duen ordenantzan ezarritako baldintzak.

- e) Adjudikaziodunek udaleko teknikariek azoka-esparruko segurtasuna eta osasungarritasuna bermatzeko emandako jarraibideak bete beharko dituzte.
- f) Adjudikaziodunek udalak emandako gehieneko epearen barnean kendu beharko dute instalazioa. Okupatutako espazioa instalazioa jarri aurretik zegoen baldintza berean utziko da, eta bertako segurtasuna eta osasungarritasuna bermatuko dira.
- g) Adjudikatutako espazioaren mugak barrakarekin edo atrakzioarekin, edo beste elementu batzuekin, gainditzea berariaz debekatuta dago (publizitateko elementuak barne). Barneko kaleak eta oinezkoentzako guneak ere ezingo dira okupatu. Edozein eratako produktuak saltzeko makina automatikoak udal baimenik jartzea ere berariaz debekatzen da, baita putching ball edo antzekoen elementuak jartzea ere.
- h) Adjudikaziodunek laneko segurtasun eta higiene arauak zorrotz bete beharko dituzte, bai eta janari eta edariaren banaketari lotutako higiene eta osasun neurriak ere, egoera hori sortzen denean. Bereziki, instalazio bakoitzak behar beste handiak diren intziak izan beharko ditu sortutako hondakinak gordetzeko. Zaborra jendeak ikusten ez duen toki batean utziko da ahal den neurrian, harik eta garbiketa zerbitzuko langileek eramaten duten arte.
- i) Guztiz debekatuta dago feria barrutian bizirik dauden era guztietako animaliak edo diseekatutakoak saltzea eta zozkatzea, Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legean xedatutakoa betez. Gainera, bertan dagoen edozein animalia behar bezala tratatuko da.
- j) Eraso irudirik, irudi sexista edo arrazistarik ez erabiltzea.
- k) Azken egunean prezio murriztua aplikatzea.

Segurtasun-neurriak

- a) Barrakek eta feriako atrakzioek Eraikuntzaren Kode Teknikoko DB SI bete beharko dute. Bereziki, RSCIEI 2004ren arabera, honako hauek izan beharko dituzte:
 - 1 CO₂ su-itxalgailua, kaxa elektrikoaren inguruan.
 - ABC hautsa duen su itxalgailu bat, gutxienez, atrakzioan bertan.
 - 50 kiloko gurdi bidezko su itxalgailu bat, gutxienez, 750 litro erregai biltegitratzen badira.
 - 50 kiloko gurdi bidezko 2 su itxalgailu, gutxienez, 750 litro erregai baino gehiago biltegitratzen badira.
- b) Makinek, egiturek eta atrakzioek UNE 13814:2006 Arauan xedatutakoa bete beharko dute edo instalazioaren datan indarrean dagoena.
- c) Barraketako batek gas bidezko sukaldeak badu, Gas Instalazioen Oinarrizko Arauetan eta aplikagarria den gainerako araudian xedatutakoa bete beharko du. Gas botila sukaldearekin lotzeko dagoen hodi malguak ez du 1,5 metro baino gehiago izango, eta luzeagoa behar badu, instalazioa homologatutako hodi metalikokoa izango da. Gas botilak ez dira egunez eguzkitan jarriko edo edozein bero fokutik gertu.
- d) Guztiz debekatuta dago enbalajeko sukalde, kutxa, kartoi eta sukoia den beste edozein materialetik gertu biltegitratzea.

Zaratarekin eta hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten neurriak

Soinu emisioak eta hondakinen kudeaketa

1. Zaratei eta soinu emisioei dagokienez, zorrotz bete beharko da aplikagarria den araudian xedatutakoa. Bereziki, barraketan eta atrakzioetan instalatutako aparatu, ekipo edo tresna guztiek ezingo dute 90 dezibeliotik gorako soinurik isuri, normal funtzionatzen ari direla, aurrean 1,5 metroko distantzian, altueran lurretik 1,20 eta 1,50 metro arteko distantzian intzidentziarik ez duen eremuan neurtuta, gaueko 22:00ak arte, eta 70 dezibeliotik gorakoak ordu horretatik aurrera.



2. Instalazio bakoitzak bertako erabiltzaileei bidalitako banakako mezuak alde batera utzita, musika edo soinu emisio bakarra izango da, hala badagokio, kutsadura akustikorik izan ez dadin, eta zarata bat baino gehiago aldi berean entzutearen ondorioz bertaratutako guztiei eragozpenik ez sortzeko.

3. Adjudikaziodunek, hondakinen kudeaketari dagokionez, aplikagarria den Bideko Garbiketari buruzko Udal Ordenantza eta gainerako arautegi aplikagarria bete behar dute. Berariaz, hiri hondakinak edo antzekoak itxitako plastikozko poltsetan sartzera behartuta daude, eta dagozkien edukiontzietan sartuko dituzte.

4. Erabilitako landare olioak hondakin gisa sortzen duten jarduera guztiak hura erretiratzeko eta kudeatzeko baimendutako kudeatzaile bat izan behar dute. Guztiz debekatuta dago era horretako hondakinak uztea edo isurtzea.

5. Hondakin arriskutsuen kudeaketak aplikagarria den araudian xedatutakoa beteko du zehatz-mehatz. Udalak zirkulazioa eragozten duen edo herritarrentzat arriskutsua gerta daitekeen edozein objektu erretiratuko du, eta sortutako gastu guztiak jabearen edo utzi duenaren kargu geratuko dira.

Ibilgailuak

Baimendutako ferriako langileek beraien karabanak, kamioiak eta etxebizitza mugikorrek ibilgailuetarako diren tokietan aparkatuko dituzte, Zirkulazio Araudi Orokorren xedapenak betez.

KALEKO SALMENTA

Kaleko salmenta modalitate hauen arabera egin daiteke:

- Aldizkako merkatuetako salmenta: ohiko merkatuak izan daitezke edo ezarri berriak, betiere espazio publiko jakin batzuetan kokatuak, eta astean behin.
- Noizbehinkako merkatuetako salmenta: azokak, jaiak, herriko ospakizunak edo eskulangintza azokak direla-eta, noizean behin ezartzen diren merkatuak.
- Denboraldiko postu finkoetako salmenta: salmenta-postu bereziak, espazio publikoko zenbait tokitan denboraldi baterako jartzen direnak, artikulua jakin batzuek saltzeko.
- Herri-bideetan, denda-ibilgailuetan edo kalean ipinitako saltokietan egiten den salmenta, inguruabar eta baldintza jakinetan baimentzen dena.

Ez dira kaleko salmentatzat hartuko eta ordenantza honetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

- Etxez etxeko salmenta.
- Urrutiko salmenta.
- Makina automatikoen bidezko salmenta.
- Bide publikoan dauden baimendutako postuak, finakoak eta egonkorrak.

Baimena lortu eta mantentzeko baldintzak

Kaleko salmentarako baimena lortu eta mantentzeko baldintzak hauek dira:

- Zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean izatea, bereziki honako hauek:
 - Merkataria alta emanda egotea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion epigrafeetan.
 - Merkataria dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean alta emanda eta kuotak ordainduta egotea. Pertsona fisikoei dagokienez, baldintza hau bete behar dute titularraren izenean jarduera honetan aritzeko baimena eskatzen den pertsonen ere. Pertsona juridikoei dagokienez, baldintza hau eskatuko zaie baimena erabiliko duten pertsonen, enplegatuei edo bazkideei.
 - Dagozkion udal-tasak eta eskubideak ordainduta edukitzea.



- b) Jarduera ekonomiko horren arriskuak estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea.
- c) Salduko den produktuaren edo produktuen araudiak ezarritako baldintzak betetzea.
- d) Aplikatu daitezkeen arau tekniko-sanitarioak betetzea, salduko diren produktuei nahiz instalazioei dagozkienak.
- e) Europako Erkidegoaz kanpoko pertsonen kasuan, bizileku eta lan-baimenen jabe izatea edo bertan bizitzeko eta lan egiteko beste edozein dokumentazio edukitzea.

Jardueraren datak

Gehienez, apirilaren 28an egon ahalko dira nekazaritza eta abeltzaintza azokan parte hartu nahi badute, edo 25, 26 eta 27an, eta maiatzaren 3 eta 4an (apirilaren 24tik muntatzeko eta maiatzaren 25era arte desmuntatzeko aukerarekin).

Kokalekua

Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokaren egunean kaleko salmentarako kokatzeko jai esparrua, Udalaren ondoan dagoen karpatik anbulatorioraino dagoen eremuan egongo da, errepideko bi ertzetan, eta iturriaren eta anbulatorioaren artean dagoen eremuan, errepideko bi ertzetan, gainerako egunetan.

Eskabideak aurkezteko modua*Eskatzaileen baldintzak***A) Baldintza orokorrak**

1. Kaleko salmentarako postuen instalazioak jartzeko eskaera aurkeztu ahalko dute legez eraturik dauden pertsona fisiko edo juridikoek, beren zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzakoak egunean badituzte, eta toki, autonomia edo estatu mailan aplikagarria den arautegian arau-hauste oso larriarik, bi arau-hauste larri edo hiru arau-hauste arin ez badituzte egin. Eskatzaileak zigor penalen bat jaso izan balu, bertan xedatutakoa beteko da. Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaerak automatikoki ezetsi egingo dira.

2. Hala ere, aurreko puntuan deskribatutako baldintzak betetzen ez dituztenek, kopapenari buruzko puntuan zehaztutako esparrutik kanpoko eremua eskatu ahalko dute, baina Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokaren egunerako bakarrik.

B) Baldintza bereziak

Erkidegokoak ez diren atzerritarrek dagozkion bizileku eta lan baimenak izan behar dituzte, indarreko legediak ezarritako baldintza guztiak betez.

Baimenaren indarraldian edozein baldintza galduz gero, amaituztat joko da.

Eskabideak aurkezteko tokia

Lurzoru publiko egoki gutxi dagoenez, mota horretako behin behineko instalazioak jartzeko, ezinbestekoa izango da udalaren baimena izatea. Hor lortzeko, ordenantza honetan jasotzen den prozedurari jarraituko zaio. Gatikako Udalak, gehienez, 50 kaleko salmenta postuetarako baimena emango du.

A puntuan (Baldintza orokorrak 1) deskribatutako baldintzak betetzen ez dituztenek egindako Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokaren egunerako eskaerak, dagoen eremua- ren eta kopuruaren arabera baloratuko dira.

Kaleko salmenta-postuaren adjudikaziodunak Alkatetza-dekretu bidez esleituko dira.

Ez da inola ere egongo automatikoki berritzeko prozedurarik. Halaber, baimena iraungita, ez da inolako abantailarik egongo ez uzte duen emailarentzat, ez eta harekin bereziki lotutako pertsonentzat ere.

Ematen den baimena besterenezina izango da.

Udalak beste eskatzaile batzuei adjudikatu ahal dizkio libre geratu diren postuak, betiere baldintza guztiak betetzen badituzte.

**Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Aipatutako epez kanpo aurkezten diren eskaerak ukatu ahalko dira, izapide gehiagorik egin gabe.

Eskaerak aurkezteko lekua

Eskabideak Udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira.

Eskaera-eredu orokorraren arabera eskabidea Gatikako Udalean jaso ahalko da, eta udalaren webgunetik deskargatu: www.gatika.net.

Pertsonako gehieneko proposamen kopurua

Interesdun bakoitzak proposamen bat bakarrik aurkeztu ahalko du.

Aurkeztu beharreko agiriak

1. Udalaren baimena emateko, zerbitzu-emaileak Alkateari zuzendutako eskaera egin beharko du ordenantza honen I. Eranskinean aurreikusten den ereduaren arabera, eta honako datuak jasota:

- a) Izen-abizenak edo, hala badagokio, zerbitzu-emailearen egoitza soziala.
- b) Posta helbidea eta helbide elektronikoa.
- c) NAN, AIZ (NIE) edo IFK, pertsona juridikoen kasuan, edo Europako Batasuneko Estatu kideren batek emandako antzeko egiaztagiriren bat.
- d) Instalazioen eta salgaien deskripzioa.
- e) Pertsona juridikoen kasuan, baimen hori erabiliko duen pertsona, enplegatu edo bazkidearen erreferentzia ere jaso beharko da.
- f) Pertsona fisikoen kasuan, bere izenean jarduera horretan aritzeko baimena eskatzen den pertsonaren edo pertsonen erreferentzia ere jaso beharko da.
- g) Eskaera baloratzeko garrantzia izan dezaketen merituak eta beste zenbait xehetasun.

2. Aurreko atalean aipatutako datuak jasotzeaz gain, zerbitzu-emaileek adierazpen arduratsua sinatu beharko dute eskaera aurkeztearekin batera, eta gutxienez, honakoa hauek adierazi:

- a) Kaleko salmentan jarduteko ezarri diren baldintzak beteko dituztela.
- b) Hori egiaztatzen duen dokumentazioaren jabe izatea, jarduera hasten denetik. Bereziki, Ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuen jabe izatea.
- c) Baldintzak betetzen jarraitzea baimenak indarrean irauten duen bitartean.

3. A puntuan (Baldintza orokorrak 1) deskribatutako baldintzak betetzen ez dituztenek egindako Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokaren egunerako eskaerek ez dituzte egiaztatu beharko aurreko puntuan adierazitako kontuak.

4. Baimena eman ondoren, Udalak, hala badagokio, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dituen ahalak erabiliko ditu, adjudikaziodunari behar diren dokumentuak eskatuta.

Identifikazio txartela

Udalak identifikazio-txartela emango dio baimendutako pertsonari, eta hor agertuko dira baimenari dagozkion datu nagusiak.

Baimendutako pertsonak ikusteko moduko tokian jarri beharko du identifikazio-txartela, bai publikoarentzat, bai ikuskatzera doazen agintarientzat.

**Identifikazio txartela***Baimenaren titularrek dituzten eskubideak*

1. Kaleko salmentan jarduteko udal baimena dutenek eskubide hauek izango dituzte:
 - a) Baimendutako saltokiak erabili ahal izango dituzte.
 - b) Udalak baimendutako kaleko salmenta-jarduera jendaurrean eta modu bake-tsuan egin ahal izango dute, baimenean zehaztutako orduetan eta bertan ezarritako baldintzak betez.
 - c) Baimena duen azokaren funtzionamendua hobetzeko erreklamazioak eta irado-kizunak aurkeztu ahal dituzte.
 - d) Udalaren aldetik, baimenaren datu esanguratsuenak dituen identifikazio-txartela ematea baimenaren titularrari.
 - e) Saltokia non kokatuko den jakin dezakete. Nolanahi ere, gainazal asfaltatuan, zolatuan edo zementuz estalian egon behar da.
 - f) Azoka kentzen bada, udal baimenaren titularrak haren ordezkari antolatzen den azokan beste saltoki bat lortzeko lehentasuna izango du; hala gertatzen bada, iraungitako baimenaren baldintzek bere hartan jarraituko dute, ahal dela.
 - g) Kaleko salmenta baimentzen deneko egunak Udalaren erabakiz ez aldatzeko eskubidea du, jai edo gertakari berezi batekin bat ez badatoz. Kasu horretan, nahikoa aurrerapenaz jakinaraziko zaio aldaketa hori.
2. Aldizkako merkatuetan kaleko salmenta egiteko udal baimena duten titularrek eskubidea dute salmentaren ondorioz sortutako hondakinak biltzeko ontziak eskura izateko.

Baimenaren titularrek dituzten betebeharrak

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharren kalterik gabe, kaleko salmentan jarduteko udal baimena duten titularrek honako betebeharrak zehatz hauek izango dituzte:

- a) Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka bada eta antolatzaileek aurrez fabrikatutako etxolak jartzen dituzten ferietako salerosleen eskura, salmenta etxola horretan egin beharko da.
- b) Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokan antolatzaileek ez badute aurrefabrikatutako etxolarik, edo Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokatik kanpo, eta berariazko azpiegiturarik gabe egiteko, postu edo instalazio desmuntagarri eta erraz garraiatzekoetan eta denda-ibilgailuetan egingo dute salmenta. A puntuan (Baldintza orokorra 1) deskribatutako baldintzak betetzen ez dituzten Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokaren egunerako salerosleek, postu edo instalazio desmuntagarri eta erraz garraiatzekoetan eta denda-ibilgailuetan egin beharko dute salmenta.
- b) Agerian eta jendeak erraz ikusteko moduan jarriko dituzte honako elementuak:
 - Daukaten udal baimena.
 - Udalak emandako identifikazio-txartela.
 - Kontsumitzaileek erreklamaziorik aurkeztuz gero, horiek jasotzeko helbidea.
- c) Salerosketaren ordainagiria edo egiaztagiria ematea; agiri horretan, gutxienez, honakoak agertuko dira:
 - Datu pertsonalak edo, hala badagokio, saltzailearen izen soziala.
 - NAN, AIZ edo IFK.
 - Kontsumitzaileek erreklamaziorik aurkeztuz gero, horiek jasotzeko helbidea.
 - Produktua.
 - Prezioa.
 - Data.
 - Sinadura.



- d) Behar bezala akreditatutako udal langileek edo agintariek errekerituz gero, eskatutako dokumentazioa ematea.
- e) Salmenta-postuetan honako hauek egongo dira:
- Pertsona fisikoei adjudikatu zaizkienetan: baimenaren titularra edo haren ize-nean jarduteko baimena dutenak.
 - Pertsona juridikoei adjudikatu zaizkienetan: baimenean jarduera horretarako baimenduta ageri den pertsona, enplegatua edo bazkidea.
- Debekatuta dago salmenta-postuan baimendu gabeko pertsonak egotea.
- f) Salmenta-postuan kartelak edo etiketak jartzea, eskainitako produktuen salmenta-prezioak ikusteko moduan egon daitezen. Saltzeko produktuen prezioa agerian eta oso argi jarri beharko da, betiere arlo honetan indarrean dagoen legeria betez. Produktuak ontziratatu gabe edo soltean saltzen direnean, eta elikagaiaren prezioa kantitatearen edo bolumenaren arabera zehazten denean, prezioa neurri-unitateetan adieraziko da.
- g) Salmentan jarduten dutenen ibilgailuak ezin dira egon azoka barruan, ez eta saltokiaren ondoan ere. Merkatuaren kanpoaldean horretarako jarriko diren tokitan aparkatu beharko dira. Kamioi-dendak debeku horretatik kanpo daude. Denda-ibilgailuak salbuetsita daude debeku horretatik.
- Ibilgailuak salgaien zabalera egiteko behar den denboran soilik egon daitezke azoka barruan.
- h) Salmentarako perimetroak eta lekuak errespetatzea; salmenta-postuak ezin dira egon toki publiko edo pribatuaren sarreretan, ezta saltoki edo establezimendu industriaren sarbidean ere. Bestalde, ezin dira kokatu erakusleihoak edo erakustokiak, trafiko-seinaleak eta antzekoak ezkutatzeko moduan. Ezin dira kokatu kaleek bat egiten duten lekuetan, oinezkoen pasabideetan edo etxebizitza, merkataritza edo ibilgailuen sarreretan.
- i) Salgai pisagarri eta neurgarriak eskaintzen dituzten saltokiek arauzko baskula eta metroak eduki behar dituzte.
- j) Behar bezala babesturik eta, gutxienez lurretik 60 cm-ra erakutsi behar dira jendaurrean salgai guztiak, bolumenagatik edo pisuagatik arazoak sortzen dituztenak izan ezik.
- Janari-edariak ontzi edo edukiontzi homologatuetan erakutsi behar dira, eta ahal dela, bakoitza berarentzat egokia den batean.
- k) Ezarritako saltokitik kanpo ezin da ezer saldu, eta postuen arteko pasabideetan ezingo da zirkulazioa oztopatu.
- l) Salmenta-postuen garbiketa egitea, merkaturia amaitzen denean, postua egon den tokia eta inguruak garbi geratu daitezke. Merkataritza-jarduera horren ondorioz sortutako hondakinak, ontziak, bilgarriak eta zaborra horretarako jarrita dauden zabor-ontzietara botako dira. Kaleko salmenta-jarduera dela-eta, ezin dira zabor-ontziak lekuz aldatu.
- m) Saltokiaren instalazioak ondo artaturik eduki beharko dituzte.
- n) Zoladuran, zuhaitzetan edo, oro har, jabari publikoan egin daitezkeen kalteak konpontzeko ardura izango dute; era berean, beren jarduera dela-eta hirugarrenei eragindako kalte nahiz galeren erantzule izango dira, eta horretarako, erantzukizun zibileko aseguruia izan beharko dute.
- o) Debekatuta dago beren merkantziak iragartzeko aparatu akustikoak erabiltzea.

Kaleko salmenta egiteko modua

1. Kaleko salmenta-jarduera egitea kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak errespetatu beharko dira. Horiek, kontsumitzaile eta erabiltzaileen arloko indarreko arautegian jasotzen dira.



2. Bereziki, zerbitzu-jardueretarako sarbide libreari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 22. artikuluan jasotzen diren kontsumitzaile eta erabiltzaileen informazio-eskubideei erreparatu beharko zaie.

TXOSNAK

Halako instalazioak Gatikako Udalak aurretiaz finkaturiko lekuan bakarrik jarri ahal izango dira.

Txostenetarako instalazioek beharrezko baldintza teknikoak bete beharko dituzte pertsonen nahiz ondasunen segurtasuna bermatzeko eta, oro har jendearen babesaren segurtatzeko eta inori eragozpenik ez eragiteko, kasu bakoitzeko eska daitezkeen arauen arabera.

Txosnen ohiko tamainak 12x8, 8x4, 6x4 eta 4x4 izango dira.

Txosna ipintzeko ezinbestekoa izango da txosna ipintzen duen hori, herriko elkartea izatea eta Jai batzordearen batzar orokorretara etortzea.

Elkarteen aukera izango dute txosna bat, bi edo hiru elkarte edo taldeek batera jartzeko.

Jai Batzordeak arlo teknikoaren txostena jaso ostean kopurua eta kokapena erabakiko ditu, beti ere ospakizunen ezaugarrien, gune erabilgarrien eta abarren arabera. Publikoak ez diren lurretan jartzen badira, eskatzaileek egiaztatu beharko dute instalazioak ukitzen dituen jabeen baimena.

Ez da txosnatzat hartuko tabernek atera ditzaketen barrak.

Eskabideak aurkezteko modua

Eskatzaileen baldintzak

A) Baldintza orokorrak

Txosnak jartzeko eskabide bat aurkez dezakete Gatikako Jai Batzordeak eta kultura, kirol, hezkuntza edo gizarte arloko irabazi-asmorik gabeko elkarte edo taldeek, egoitza Gatican badute eta Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan inskribatuta badaude. Horrez gain, talde horiek, herritar guzientzat interesgarria den ekitaldi nagusi bat antolatu beharko dute.

Eskabideak aurkezteko tokia

Lurzoru publiko egoki gutxi dagoenez, mota horretako behin behineko instalazioak jartzeko, ezinbestekoa izango da udalaren baimena izatea. Hor lortzeko, ordenantza honetan jasotzen den prozedurari jarraituko zaio. Gatikako Udalak, gehienez, bi txostenetarako baimena eman dezake, Gatikako Jai Batzordearena alde batera utzita.

Ez da inola ere egongo automatikoki berritzeko prozedurarik. Halaber, baimena iraungita, ez da inolako abantailarik egongo ez uzte duen emailarentzat, ez eta harekin bereziki lotutako pertsonentzat ere.

Ematen den baimena besterenezina izango da.

Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Aipatutako epez kanpo aurkezten diren eskaerak ukatu ahalko dira, izapide gehiagorik egin gabe.

Eskaerak aurkezteko lekua

Eskabideak Udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira.

Eskaera-eredu orokorraren arabera eskabidea Gatikako Udalean jaso ahalko da, eta udalaren webgunetik deskargatu: www.gatika.net

Pertsonako gehienerako proposamen kopurua

Interesdun bakoitzak proposamen bat bakarrik aurkeztu ahalko du.

**Aurkeztu beharreko agiriak**

Udaleko dirulaguntza eskatu ez duten elkarteak:

- Eskatzailearen urteko aurrekontua eta memoria, txosnatik ateratako dirua zertarako erabiliko dan azalduz.
- Aurreko urtean txosna ipini bada, horren likidazioa.
- Eskaera orria, non txosnaren ezaugarri nagusiak, txosna elkarbanatu nahi bada, etab. jaso beharko den.

Udaleko dirulaguntza eskatu duten elkarteak:

- Eskaera orria, non txosnaren ezaugarri nagusiak, txosna elkarbanatu nahi bada, etab. jaso beharko den.

Behin-behineko adjudikazioa egin eta 7 egunera:

- 300 euroko fidantzaren ordainagiria.
- Erantzukizun zibileko poliza indibiduala (frankiziarik gabe) eta berorren ordainagiria. Erantzukizun zibileko poliza indibidual horrek jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legeak ezarritako zenbatekoa izan beharko du gutxienez ere, baimendutako jarduera horrek hirugarrenei sortu ahal dizkien kalte eta galerak ordaindu ahal izateko.
- Janariak erabili ahal izateko karneta, janariekin ibiliko diren guztien kasuan.
- Txosnaren ordezkaria (erabakiak hartzeko ahalmen nahiko daukana) nor den adierazi beharko zaio Udalari, eta momentu guztietan berarekin hartu-emanetan jartzeko moduan egon beharko du.
- Egituraren dokumentazio teknikoa, 1:100 eskalako plano eta eskumeneko teknikari batek egindako ziurtagiria.
- Instalazioak segurtasun, osasungarritasun eta higiene baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria.
- Argia edota ura hartzeko baimena.
- Suteen kontrako babesa: xede horretarako jarritako su-itxalgailu mota eta kopurua. Gutxienez, 21.^a, 113B efikaziako su-itxalgailu bat jarri beharko da, dagozkion azterketak egunean direla eta erraz erabiltzeko moduan.

Udalak hasierako egiaztapen teknikoaz gain, edozein momentutan erabaki dezake txosnak edo instalazioak ikuskatzea, baldintza onean daudela ziurtatzeko.

Txosnen adjudikazioa

Jai Batzordeak txosna ezartzea erabakiko balu, hau ez litzateke puntuaketan sartuko eta kokalekuaren arabera lehentasuna izango du.

Eskari kopurua ezarritako txosna kopurua baino handiagoa bada, aukeratzeko irizpideak ondokoak izango dira:

- Urteko aurrekontua: 20 puntu.
- Elkartearen antzintasuna: 20 puntu.
- Jaietako jardueretan erakutsitako koordinazio maila eta parte hartze aktiboa: 10 puntu.
- Herrian urtean zehar egiten diren jardueretan erakutsitako koordinazio-maila eta parte hartze aktiboa: 30 puntu.

Berdinketa kasuan, jendaurreko zozketa egingo da.

Adjudikaziodun bakoitzak Udalaren aurrean izango duen ordezkari bakarra izendatu beharko du, eta hau uneoro toki ezagunean egon beharko da.

Txosten betebeharrak

Jarduera Udalak ezartzen dituen datetan hasi eta amaituko da, eta amaitzen denetik, gehienez, 24 ordutan kendu beharko du material guztia.



Musika-ekipamendu bat bakarrik egongo da txosna guztietarako, eta txosnen eremuan zer musika jarriko den Jai Batzordeak erabakiko du (talde edo elkarte bakoitzari musika hautatzeko aukera bermatuko die). Gutxienez, %70 euskaraz hitz egin beharko da.

Gauetan ontzi berrerabilgarriak bakarrik egongo dira txostenetan, hau, ez erabilera bakarrekoak.

Instalazio horiek, pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren baldintza teknikoak bildu beharko dituzte, hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko. Egituren sendotasun, funtzionamendu, suteen kontrako prebentzio eta babes neurri, osasungarritasun eta higie arloan dauden arautegiak batik bat kontuan hartuko dira.

Instalazio lanak ezingo dira hasi Gatikako Udalaren eskumeneko organoak ezarritako egunera arte, eta ekitaldia hasi baino 24 ordu lehenago osorik amaituta egon behar dute. Instalazioa, baimena amaitzen den egunaren ondoren, gehienez, 4 egun egon daiteke desmuntatu gabe.

Elikagaiekin eta edariekin lotutako jarduerak, biltegiatzea barne, sabaia duten instalazioetan egin beharko dira, eguralditik babestuta, nahikoa argituta, eta eremu horretara publikoa oro har sartzan uzten ez duten sistemak izan beharko dituzte.

Eskaera aurkezten duten subjektuek, Adikzio eta Droga-mendekotasunen Arreta Integralari buruzko apirilaren 17ko 1/2016 Legearen xedapen guztiak betetzen dituztela egiaztatatu beharko dute, batik bat txosnetan 18 urtetik beherako pertsonak daudenean, eta ezingo du tabakorik eta edari alkoholodunik saldu. Erraz ikusteko leku batean jarriko du debeku hori adierazten duen kartela, 42x30 cm-koa.

Instalazioak: elikagaiak manipulatzan diren eremuan edateko ura duen harraska bat eta hozkailuak egongo dira elikagaiak gordetzeko.

Elikagaiak prestatzen dituzten langileek elikagaien manipulatuzailearen agiria izan beharko dute. Langile horiek lan egitean erabiltzen dituzten jantziak xede horietarako egokiak izango dira. Beren garbitasunean higiea mantenduko dute, eta jantziak garbiketa-egoera egokian izango ditu, baita jardunean erabiltzen dituen tresnak ere.

Elikagai guztiak baimendutako establezimenduetan erosiko dituzte, eta behar bezala etiketatuta egongo dira. Hala ez daudenak (hala nola fakturatutako salmentako haragi-produktuak), jatorria justifikatuko da, dagokion fakturaren bidez. Hotzean kontserbatu behar diren haragi-produktuak hozkailuan mantenduko dira.

Gatikako Udalak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailera jo ahalko du elikagaien edota higie eta osasunaren edozein ikuskapen egiteko.

Garbiketa: txosnetan beharrezko garbiketa eta higiea eskatuko da, eta jardueraren inguruetatik sortzen den zaborra ezingo da kanpora atera udalak eguneroko bilketa egin ondoren. Azken kasu honetan, xede horietarako dauden edukiontzietan sartu beharko da.

Hustubide guztiak ur beltzen estolderia-sarera konektatuta egongo dira.

Hauek izango dira instalazioak erabiltzeko egutegia eta ordutegia:

- Apirilaren 25, osteguna, 17:00etatik 22:30era.
- Apirilaren 26, ostirala, 17:00etatik 1:00era.
- Apirilaren 27, larunbata, 10:00etatik 2:00etara.
- Apirilaren 28, igandea, 10:00etatik 22:30era.
- Maiatzaren 3, ostirala, 17:00etatik 1:00era.
- Maiatzaren 4, larunbata, 10:00etatik 6:30era.

Ixteko ezarritako orduan megafoniak ibiltzeari utziko dio, txosnak itxiko dira eta ixteko eta garbitzeko dauden pertsonak bakarrik egongo dira barruan. Jendeak erraz ikus dezakeen kartel bat jarriko da ixteko ordutegiarekin.

Txosnak edo antzekoak ipintzeko baimena duten talde edo erakundeek frankiziarik gabeko erantzukizun zibileko poliza bat sinatu beharko dute jarduerari hasi aurretik.

Halaber, aurkeztutako eskaera onartuta, Udalean entregatuko dira, egituraren dokumentazio teknikoaren eskaerarekin batera, 1:100 eskalako plano batekin, eraikuntzaren



ezaugarriak adieraziz, eskumeneko teknikari batek egindako ziurtagiri batekin batera, instalazioaren egiturazko sendotasuna bermatzen.

duena, konplexutasun tekniko eskasekoak edo instalazioaren ezaugarriengatik behar ez dutenak izan ezik.

Publikoaren salmenta-prezioak kartel batean jarriko dira, jendeak ikusteko moduan, merkatuaren prezioekin bat datozenak.

Baimendutako txosnek estetika, garbiketa eta ordena zaindu behar dute, bai haien barruan, bai inguruan, edo txosnen barrutian.

Txosnetan erakutsiko diren kartelek hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusibo eta berdintasunezkoa sustatu beharko dute. Halaber, erakutsitako irudiak ezingo dira izan da iraingarriak emakumeentzat. Ezingo dute igorri, justifikatu edo sustatu emakumeen aurkako indarkeriazko ereduak, edo hori egiten uzten duten portaerak.

Txosna bakoitzak erasoak prebenitzeko protokoloa onartu eta beteko du, eta xede horretarako arduraduna izendatuko du.

Gatikako Jai Batzordea erakunde independentea da, Udal honen dirulaguntza izenduna erabiltzen duena. Udalak ahala eta laguntza ematen du, eta Jai Batzordearen barruan dago ordenantza honetan araututa ez dauden gaiak arautzeko, barne araudi bidez.

Txosnek baimenean adierazitako egun guztietan irekita egon beharko dute.

KAUTELAZKO NEURRIAK, IKUSKAPENA ETA KONTROLA

Baimena ezeztatzea

Dagozkien zehapen prozedurak kontuan hartu gabe, udalak emandako baimena baliogabetu ahalko du eta instalazioa kautelaz itxi, segurtasun edo osasungarritasun publikoko arrazoiek hori egitea gomendatzen dutenean. Neurri horiek bereziki behar bezala arrazoituko dira, eta indarrean izango dira, harik eta haiek sortu dituzten arrazoiak desagertzen diren arte.

Ikuskapena eta kontrola

1. Udalak, Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak egoki betetzen direla zaindu eta bermatuko du bere Zerbitzuetako langileen bidez, unean-unean indarrean dauden higijene, osasun eta segurtasun arauak ere, Beste Administrazio Publiko batzuei dagozkien eskumenak erabiltzearen kalterik gabe.

2. Udalak, bere jagote-eginkizunak gauzatzean, produktu, jarduera eta instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, bai eta saltzaileei horiei buruzko behar adina informazio eskatu ere.

3. Salgai jarritako produktu edo zerbitzuek kontsumitzaileen edo erabiltzaileen osasunerako nahiz segurtasunerako arriskuren izango balute, kalitatean edo kantitatean iruzurra balego, identifikatu gabe edo faltsututa baleude, edo merkaturatzeko behar den baldintza minimorik ez balute, espedienteak irekitzen duen agintariak produktuak bahitzea erabaki lezake, kautelazko neurri gisa.

Gatikan, 2019ko martxoaren 7an.—Alkatea

**KALE SALMENTA, BARRAKAK ETA TXOSNAK JARTZEKO ESKAERA ORRIA
HOJA DE SOLICITUD PARA VENTA AMBULANTE, ATRACCIONES DE FERIA Y TXOSNAS****Eskatzailearen datuak / Datos de la persona solicitante**

1. abizena / 1.er apellido:	2. abizena / 2.º apellido:	Izena / Nombre:
NAN / DNI:	Jakinarazpenerako helbidea / Dirección a efectos de notificación:	
Udalerría / Municipio:	Posta-kodea / Código postal:	Lurraldea / Provincia:
Telefonoa(k) / Teléfono(s):	E-posta / E-mail:	

Instalazio mota / Tipo de instalación

- Kale salmenta / Venta ambulante Barraka / Atracciones de feria Txosna

Eskaera eta instalazioaren deskribapena / Solicitud de autorización y descripción de la instalación

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Aurkeztutako agiriak / Documentación que se adjunta

.....

.....

.....

.....

Data eta sinadura / Fecha y firma

Norberari buruz jasotako datuak «espedienteen jarraipena egiteko fitxategian» sartuko dira, eta ez da aurreikusten bertan bildutako informazioa inori uztea. Fitxategiaren helburua da udalak kudeatzen dituen espediente guztien barne-tramitazioa egitea, txostenak sortzea, eta dokumentuen sarrera eta irteera guztiak biltzea. Fitxategiaren organo erantzulea udal honetako Alkatetza da, eta bere aurrean baliatu beharko dira datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko eskubideak. Eta horren guztiaren berri ematen da, hala ezartzen balta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 6. artikuluan («Datu pertsonalen fitxategi publikoei eta datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Legea»).

Los datos personales recogidos serán incorporados y tratados en el fichero denominado «Fichero de seguimiento de expedientes» cuya finalidad es la tramitación interna de todos los expedientes gestionados por el Ayuntamiento, generación de informes, almacenamiento de todas las entradas y salidas de documentación y del cual no se prevén cesiones. El órgano responsable del fichero es la Alcaldía de este Ayuntamiento ante quien el interesado podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, todo lo cual se informa en cumplimiento del artículo 6 de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Dato

**DATU BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS**

Arduraduna	Responsable
Gatikako Udala Garai Auzoa, 1, 48110-Gatika Datu-babeseko delegatuaren kontaktoa: dpd@gatika.net	Ayuntamiento de Gatika Garai Auzoa, 1, 48110-Gatika Contacto del delegado de protección de datos: dpd@gatika.net
Helburua	Finalidad
Iraupena: Ezarritako legezko epea	Duración: Plazo legal establecido
Legitimazioa	Legitimación
Erabiltzailearen baimena/ Legeak behartuta	Consentimiento de la persona usuaria/ por obligación legal
Hartzaileak	Personas destinatarias
Hirugarrenei ez zaie daturik lagako, legeak behartuta izan ezik.	No se cederán datos a terceras personas salvo obligación legal.
Eskubideak	Derechos
Datuetara iritsi, zuzendu eta ezabatzea, bai eta bestelako eskubideak ere, informazio gehigarrian azaldu bezala	Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional.
Jatorria	Procedencia
Inprimakia	Formulario
Informazio gehigarria	Información adicional
Datu baesari buruzko informazio gehigarria eta xehatua ikusgai daukazu gure web-orrian: http://www.gatika.net/es-ES/Paginas/ProteccionDatos.aspx	Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web: http://www.gatika.net/es-ES/Paginas/ProteccionDatos.aspx

Norberari buruz jasotako datuak «espedienteen jarraipena egiteko fitxategian» sartuko dira, eta ez da aurreikusten bertan bildutako informazioa inori uztea. Fitxategiaren helburua da udalak kudeatzen dituen espediente guztien barne-tramitazioa egitea, txostenak sortzea, eta dokumentuen sarrera eta irteera guztiak biltzea. Fitxategiaren organo erantzulea udal honetako Alkatetza da, eta bere aurrean baliatu beharko dira datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko eskubideak. Eta horren guztiaren berri ematen da, hala ezartzen balta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 6. artikuluan («Datu pertsonalen fitxategi publikoei eta datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Legea»).

Los datos personales recogidos serán incorporados y tratados en el fichero denominado «Fichero de seguimiento de expedientes» cuya finalidad es la tramitación interna de todos los expedientes gestionados por el Ayuntamiento, generación de informes, almacenamiento de todas las entradas y salidas de documentación y del cual no se prevén cesiones. El órgano responsable del fichero es la Alcaldía de este Ayuntamiento ante quien el interesado podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, todo lo cual se informa en cumplimiento del artículo 6 de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Dato